

Ordizia

Kilo bat istorio



Ipuinak

Jolasak

Ariketak

Irakurgaiak

Argazkiak

Mapak

Marrazkiak

1

**GURE
SUSTRAIAK**

- Nola hazi eta aldatu den Ordizia • Azokaren historia
- Garai bateko bizimodua • Pertsonaia esanguratsuak...

Lege gordailua:

Argitaratzailea: Ordiziako Udala.

Koordinazioa: iametza interaktiboa.

Edukien egileak: Pantxike Agirre Iturrioz, Lurdes Mujika Agirre.


Diseinua eta ilustrazioak: Garbine Ubeda Goikoetxea.

Argazkiak: Ordiziako udal artxiboa, edukien egileak. Airetik eginiko argazkiak
(1 eta 6-7 orrialdeetakoak) TVEk utziak.

Kolaboratzaileak: Patxi Zubizarreta, Iñaki Murua, Urdaneta ikastetxea, Ekintza ikastola.

Inprimategia: ANTZA, S.A.L.

LEHEN HALA



ORAIN HOLA



GERO EZ JAKIN NOLA...



Ni, zera... Nik, ba... Horixe, lotsati samarra
naiz ni eta ez dakit OSO ONDO NOLA
AURKEZTU NEURE BURUA. Edo bai:

Kattalin txiki-txiki
Kattalin arina,
zenbana saltzen duzu
dozena sardina?
Hamalau marabedi,
prezio jakina,
ez baldin baduzu nahi
banoa aitzina.

Ni, zera... Nik, ba... Horixe naiz ni,
kantukoa bezalakoxea: Kattalin, txikia, arina,
lotsatia bai, baina orain badakit nola
aurkeztu neure burua.

Ordziarrak gera,
ordziarrak gera gu,
agur herriari,
agur egiten diogu,
alaitasuna guk
ordziarrak badegu,
okasio da ta lana alde batera
utzi ta festa nahi degu!

Bernardo Alberro

Bai horixe! Lortu dut neure burua aurkeztea: Kattalin, txikia, arina,
alaia, kantuzalea, ordziarra...

Eta zu nolakoa zara? Esan, esan...

NOLA IKUSTEN DUZU ZUK ORDIZIA?

Norbaitek Ordiziari buruzko marrazkia egiteko eskatuko balizu,
zer marraztuko zenuke? Hartu papera eta arkatza eta ekin lanari!





Laguntza behar dut!



Eta orain, zuen laguntzarekin, gure herria aurkezten saiatuko da Kattalin, gure herria hobeto ezagutzen: noiz eta nola sortu zen, nolakoa zen hasiera batean, nola hazi den, ordziarrak nola bizi izan diren, azokaren garrantzia... Baina, esan bezala, horretarako zuen laguntza behar du, eta azti ibiltzea, eta sekretuak ondo gordetzea. Bai, aitona Peruk esaten duen bezala: *Marabara, maraberi, kontakatilu hiztuna bertan hil bedi.*

Ezertan hasi baino lehen, herria ezagutzen ote duzun jakin nahi dut. Hemen bederatzi argazki dituzu, baina bi ez dira Ordiziakoak. Zeintzuk ote dira?





itona Peru artzaina da. Berak esaten du artzain izan denak sekula ez diola uzten artzain izateari, horretan ez dagoela erretiroa hartzerik.

Ni, berriz, kalekumea naiz. Horrexegatik atsegin dut aitona-amonon baserrira joatea, haiei laguntzea, haien istorioak eta kantuak entzutea.

—Hara, hara, badator gure Kattalingorri! —esaten du aitona ni ikustean.

Kattalingorri esaten dit bai, hau da, amona mantangorri. Baina amonak *Lamia* esaten dit, edo *Nere lamiatxo*. Sobra ere, ahate hankak dituzten emakumeak dira lamiak, emakume eder eta ile horiak. Urrezko orrazia omen daukate eta erreka bazterrean aritzen dira, orraztu eta orraztu.

Aitona Peruk eta amona Agedak gauza gehiago ere kontatzen didate, eta nik ere gaur badut zer kontatua, baina lehenago sekretua gordeko duzuela agindu behar didazue. Bai: *Marabara*, *maraberi*, *kontakatilu hitzuna bertan hil bedi*.

Egun batean, aitona-amonenean asteburu pasa nengoela, ni bakarrik geratu nintzen artaldea zaintzen. Baina baserrira jaisteko orduan, hasi naiz ardiak kontatzen eta bat falta ez zait ba...! Berriz ere kontatu nituen, baina bat falta! Hau komeria! Nire larri hartan, Bixkor txakurra artaldearekin utzi, eta bila hasi nintzen. Azkenean, Murumendi aldean, hara non marraka bat entzun nuen...

Ez dakit, ipuinean bezala, “Beeertan goxo, beeertan goxo” esaten ote zuen, baina hotsa kobazulo batetik ateratzen zen, eta ni hara jaitsi nintzen. Ezkutuka hurbildu nintzen, isilka, eta goru batekin ehuna egiten ari zen emakume eder bat ikusi nuen, ardia oinetan zeukala. Txora-txora eginda geratu nintzen, baina haren esanak are txoratuago utzi ninduen:

—Aizan, honaino etorrita, ez al dun sartu behar?

Eskerrak aitona ipuinak ezagutzen nituen, bestela ez bainuen jakingo emakume hura Mari zela, Anboton, Aizkorrin, Murumendin edo Txindokin bizi den Mari jainkosa.

—Nik, zera... Ni, ba... —atera zitzaidan, totalka—. Ardi hori nirea, zera, aitonaarena dun —zorionez, ipuinen bitartez banekien Mariri hika zuzendu behar zaiola; bestela bertan harrapatzen zaitu.

—Bazakinat, bazakinat. Tira, hator hona.

Halaxe ezagutu nuen Mari, halaxe jakin nuen gaur egun baztertu samar sentitzen dela, ahaztu samar.

—Usurbe mendian antena jarri zutenetik, jendea begiak erre beharrean egoten dun telebistaren aurrean, pantailatik begirik kendu gabe. Eta asko eta asko ez ditun gai ingurumarira begiratzeko ere.



Marik eskutik heldu zidan kanpora joateko, eta nik ardiari heldu nion. Baina ardia eta biok atzeraka irten ginen, bestela ezin baita Marirenetik atera. Eta hango ikusmira benetan aparta iruditu zitzaidan: Aizkorri, Aralar, Ernio eta Ordizia bera ere!! Zoragarria benetan.

Eta harrezkero, aitona-amonei bezala, tarteka Mariri ere egiten diot bisita. Eta haren ahotik Ordiziari buruzko hamaika kontu dakit. Berak ia dena baitaki. Harrezkero Bertangoxo deitzen diot ardiari. Eta ni ere halaxe sentitzen naiz paraje horretan: bertan goxo, bertan ezin goxoago... Baina ez ahaztu, hau guztia sekretua da, sekretu supersekretua: *Marabara*, *maraberi*, *kontakatilu hitzuna bertan hil bedi*.

Patxi Zubizarreta

• **Adi-adi irakurriko zenuen ipuina, ezta? Azpimarratu gehien gustatu zaizun esaldia edo zatia.**

• **Kattalinek esaten digu bera *kalekumea* dela, zer esan nahi ote du horrekin?**

• **Zergatik hitz egiten ote dio Kattalinek Mariri hika?**

• **Konturatuko zinen ipuinak ez duela izenbururik. Ausartuko al zinateke izenburu polit bat jartzen?**



Zenbat gauza eta toki ikusten ditudan hemen gotik begiratuta! Zein txiki ikusten den guztia! Zein 'politte' den gure herria! Nik ikusten dudana ikusten al duzu zuk ere?



BILATU !!

Ikusten, ikusten al duzu...

- Txindoki
- Kiroldegia eta futbol-zelaia
- Jakintza ikastola
- Urdaneta ikastetxea
- Oiangu parkea
- Su eskola
- San Bartolome baseliza
- Barrena parkea
- Plaza Nagusia
- Elizako dorrea
- Lazkaibarko zubia
- Zure auzoa, zure etxea

Zer gehiago ikusten duzu?

Zein da Ordiziako zure txoko kuttunena?

NOLA HAZI ETA ALDATU DEN ORDIZIA!

Argi dago: Ordizia ez da beti gaur ezagutzen dugun bezalakoa izan eta, gainera, izena ere ez da beti hori izan. Herriak izan dituen aldaketa asko ezagutu ditu Marik, eta kontatu egin dizkit.



ESALDIA IRUDIARI LOTU

Esaldi hauek ondoko irudien argazki-oinak dira. Zein zeinena, ordea? Idatzi esaldi bakoitzaren aldameneko borobilean, dagokion argazkiaren zenbakia.




○ Hiri-gutuna.

○ Trena Ordiziara iritsi zenean.

○ Gure herria harresi batez inguratutik.

○ Zalgurdiak gaur egungo errepide nagusiaren lekuan.



Hemen, berriz, hiru irakurgai dituzu. Gure herria azken mendeotan nola eraldatu den azaltzen digute eta argazkiekin badute zerikusia. Lotuko al zenituzke? Jarri testu bakoitzaren azpiko laukitxoan argazkien zenbakiak.



- 1 Duela urte asko eta asko, gure aitona-amonon aitona-amonon eta hauen aitona-amonon garaian baino oraindik ere lehenago, bazen jada Ordizia izenez ezagutzen zen toki bat: Oria ibaiaren ertz batean, San Bartolome basilizaren inguruan, etxe batzuk besterik ez zeuden. Oso jende gutxi bizi zen han. Izan ere, gure arbasoak artzantzan aritzen ziren inguruko mendietan, Aralarren, Aizkorri eta Murumendin. Baserrietan bizi ziren, eta lurra lantzen zuten. Amalurra maite zuten, eta Murumendiko Mariri miresmena zioten. Baina kristautasunak beste Jainko bat ekarri zuen, eta baselizen inguruan biltzen hasi ziren hura aintzat hartzeko. San Bartolomen elkartzen ziren erreztzeko eta, garai hartan dendarik ez zegoenez, bertan trukatzan zituzten beren produktuak, bertan aritzen ziren berriketan.

- 2 Oria ibaiaren bazterrean ere, baina mendebalde-rago, bazegoen beste bilgune bat intxaurrondo baten inguruan. Toki horren izena Bozuntza zen, eta gaur egungo Buztuntza auzoan zegoen. Orduan udaletxerik ez zegoenez, herritarrak han biltzen ziren erabaki garrantzitsuak hartzeko, batez ere artzantzarako larre banaketari eta basoen ustiaketari buruzkoak. Sasoi hartan nekazariak lurra lantzen ikus zitezkeen, artzainak artaldeekin eta abeltzainak behiekin hantzen. Orduko bizibidea hori zen.



- 3 XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran, Villafranca izugarri aldatu zen (XX. mende hasieran Villafranca de Oria izena jarri zioten). Gure herrian zenbait lantegi sortu ziren. Lantegi horietan produktuak egiteko kanpotik ekarri behar ziren langaiak, eta horretarako errepideak hobetu beharra zegoen. Lehen auto motordunak ikus zitezkeen gure herriko kaleetan, baita lehenengo zaldi eta gurdiak ere. Trenbidea ere iritsi zen eta tren geltokia egokitu zitzaion. Erdi Artotik zeuden harresiak eta atek bota, eta herria lau aldeetara zabaldu zen. Herriguneko kaleak eta etxeak ere berriitu egin ziren, iturri berriak jarri zituzten, argiteria, espalioa...

- 4 Plaza Nagusia handitu egin zen eta estali ere bai, 1925ean, batez ere asteazkeneroko azoka babesteko. Zenbait gune sortu ziren: Gargartza plaza eta Arboleda. Auzo berri batzuk sortu ziren: Altamira, Buztuntza, Otegina... Gure herria pixkana handitu zen, gaur egungo Ordizia izatera iritsi arte.



- 1 Ordizia oso toki berezian kokatuta zegoen, bertatik pasatzen baitzen barnealdetik kostalderako bidea, edo alderantziz. Bide hori oso garrantzitsua zen: merkatarien bidea zen, eta, gainera, Gaztela eta Akitania lotzen zituen. Horregatik, Gaztelako erresumak beretzat nahi zuten. Ahaleginak eta bi egin zituen bide ondoko herriak Nafarroari kentzeko eta bereganatzeko. Nafarroako erresumaren barruan zeuden orduan Ordizia eta Gipuzkoa osoa, eta arrazoi horregatik liskar asko gertatu ziren. Gainera, lapur asko ibiltzen zen inguruetan. Arrazoi horiek medio, herria muino batera zabaltzen hasi zen, eta harresiz babesten. Garai hartan gazteluak ere baziren gure inguruan, eta horiek ere bere egin zituen Gaztelak.

- 2 Badiurdi, Gaztelako errege Alfontso X.ak 1256. urtean agindu zuela Ordiziako hiribildua sortzea, Segurakoa eta Tolosakoa ere urte horretakoak direlako. Ziur dakiguna da, 1268an hiri-gutuna eman eta Villafranca izena jarri ziola. Hiribildu horien bidez, Nafarroarekin muga ezarri nahi zen eta merkatarien

- 3 bidea babestu. Villafranca lau ateko harresi batek inguratzen zuen. Barruan bizi zen jendeak eskubide berezi batzuk zituen, eta baimenik gabe ezin zen inor barrura sartu. Ibaia behean geratzen zenez, eta hiribildua muino baten gainean, bertako jendea uhelde arriskutik kanpo geratzen zen. Ez, ordea, kanpoan bizi ziren nekazari eta artzainak.

- 4 Hiribildu barruan azoka egiteko aukera zegoen. Hori zela eta, jende asko etortzen zen Villafrancara. Erregea eta bere soldaduak ere bai atsedean hartzera, bidaia luzea egiten baitzuten Gaztelatik itsaso aldera. Horretarako, inguruko bideak ondo zainduta egon behar zuten eta ibaia zeharkatzeko zubiak ezinbestekoak ziren. Bi zubi nagusi zeuden: Lazkai-barkoa, Villafranca Ataun eta Lazkaorekin lotzen zuena eta Alkartekoa, Zaldibiarekin lotzen zuena.



GAZTELAKO
ERRESUMAN
SARTZEAN,
IZENAREKIN BATERA
HIZKUNTZA ERE
ALDATU NAHI IZAN
ZUTEN. HIRIBILDUKO
BILKURAK ETA
AGIRIAK
GAZTELANIAZ
EGITEN ZIREN,
BAINA HERRITARREK
EUTSI EGIN ZIOTEN
EUSKARARI.



Konturatu al zara lehenengo testuarekin loturarik duen argazkirik ez daukagula? Ezin izan, argazkia geroago etorri baitzen. Horren ordean, egingo al duzu zuk marrazki polit bat? Horretarako irakurri berriro testu hori eta azpimarratu bertan zure marrazkian azaltzea nahi duzuna.



Ea ondo ulertu duzun Ordizia nola aldatu eta hazi den!

egia **gezurra** Egin gurutzea dagokion laukian.

- Gure herriaren izena Ordizia izan da beti.
- Antzina-antzinako Ordizia herrixka mendi tontor batean zegoen.
- Garai hartan jendea batik bat artzantzatik eta nekazaritzatik bizi zen.
- Gaztelako erregeak hiribildua sortzea erabaki aurretik, ordiziarrek bazuten herria eta bizimodua antolatzeko euren modua.
- Sei ate zituen harresi batez inguratuta egon zen herria urte askotan.
- Trenaren etorrerak bultzada handia eman zion Ordiziari.
- Altamira eta Oteguinea auzoak hiribilduaren garaikoak dira.

GARAI HARTAN
BAI LARRE EDERRAK;
GAUR EGUN, BERRIZ,
MENDIAN GOOORA
JOAN BEHAR!
BEEEEEE! BEEEEEE!



GURE ARMARRIA



Herri bakoitzak bere izena duen bezalaxe, bere armarrria du. Ordiziak ere badu berea. Sei armarrri dituzu aurrean, baina **zein ote da Ordiziakoa? Zergatik ote du itxura hori?**

Ordiziako armarrria toki batean baino gehiagotan ikusteko aukera duzu. Honezkerok herriko lekuren batean ikusiko zenuen ezta? Ireki begiak eta hasi begira...

Non ote dago?



HIRIBILDUA

Villafranca izeneko hiribildua duzu hemen. Ondo erreparatzen badiozu almendra itxura duela konturatuko zara.

Hiru kale nagusi zituen...

Erdiko kalea: egungo Kale Nagusia.
Goiko kalea: egungo Goenkale.
Barrenkale edo Elizkale: egungo Santa Maria kalea.

...Eta lau ate nagusi

Ekialdean, Frantziako atea. Ate nagusia zen, Barrena eta Jakes jauregien artean kokatuta.

Mendebaldean, Gaztelako atea. Kale nagusiaren mendebaldeko muturrean zegoen.


Hegoaldean, Bakardade edo Erreteneko atea. San Pedro kalearen behealdean, elizako dorrearen ondoan; hau da, tren geltokiko eskaileretatik gora.

Iparraldean, Garagartzako atea. Gazteluzar jauregiaren alboan zegoen, gaur egun dugun plazaren goialdean.



KOKATU

Asmatuko al zenuke plano honetan **lau ateak** eta **hiru kaleak** kokatzen?



GURE HERRIA ERDIGUNETIK LAU ALDEETARA ZABALDU DA



Alderera dezagun Villafranca hiribildua eta gaur egungo Ordizia. Har ditzagun, esate baterako, hemen behean aipatzen diren kale, auzo, plaza eta etorbideak eta koka ditzagun gutxi gorabehera, ezkerreko marrazkian. Horrela, gure herria nola zabaldu den ikusi ahal izango duzu.



- Urdaneta kalea
- Buztuntza auzoa
- Gudarien etorbidea
- Filipineta kalea
- Aita Urdaneta auzoa
- Garagartza plaza
- Altamira auzoa

DENBORAREKIN,
 LEHEN GERRA
 KARLISTA
 BUKATU ONDOREN,
 HARRESIA ETA LAU
 ATEAK BOTA EGIN
 ZITUZTEN ETA
 HERRIA LAU
 ALDEETARA
 ZABALTZEN HASI
 ZEN: IPARRALDERA,
 HEGOALDERA,
 MENDEBALDERA ETA
 EKIALDERA.



Puntu kardinalak

Andre Madalen, Andre Madalen, iparra dago aurrean. Jauzi-jauzika, jira ta bira izkina ekialdean. Hankak airean, hankak lurrean, ezkerre mendebaldean. Hegoaldea hortxe daukazu, ipurdiaren parean.

Joxan Ormazabal



Etxe hauek oso antzinakoak dira eta gehienek badute zerbait adierazgarria. Zer ote da? Zergatik izango dela uste duzu?



LOTU ETXEAK ETA IZENAK

Zein irudi dagokio esaldi bakoitzari? Idatzi zenbakia ondoko borobilean.

- Ibarbia etxeak kantoiko balkoian armarri ikusgarria dauka.
- Sujetoenak margo bereziak ditu teilatupean.
- Abaria jauregia Plaza Nagusiko kantoian dago. Armarran bi otso ditu.
- Zabale baserriak lau dorre zituen garai batean. Gaur egun bakarra.
- Barretxen Erdi Aroko harresiaren zati bat dago, gezileiho batekin.
- Muxika dorretxea elizaren aldamenean dago. Postetxea bertan dago.
- Barrenak lorategi ederrak ditu. Ordiziarrek gehien darabilten jauregia da.
- Zabala jauregiak bi arkuko balkoia du. Nobleek eta jauntxoek bertan hartzen zuten ostatu.
- Udaletxean herriari buruzko erabakiak hartzen dira. Balkoian ikurriña dago zintzilik.




ERDIGUNERA IRTEERA

Ziur nago dagoeneko asko ikasi duzula. Ba orain, ikasitakoa aurrez aurre ikusteko aukera paregabea duzu.


UTZI DENA ETA GOAZEN ORDIZIAKO HERRIGUNEA ARAKATZERA! EZ AHAZTU ARGAZKI KAMERA!!

Kattalinek argazki ugari atera du eta webgunean jarri ditu. Hona hemen batzuk. Ezetz asmatu non eginak diren!



GURE KALEAK ETA HERRIKO PERTSONA ESANGURATSUAK

Ez dakit konturatuko zinen, baina gure kale batzuek pertsona izena dute. Hemen dituzu batzuk. Lotu izenak eta abizenak eta kale izendegian egiaztatu. Ea zenbat asmatzen dituzun!



NICOLAS
DOMINGO
JOSEBA
AITA
JOSE MIGEL
VICTOR
DOMINGO

GOITIA KALEA
MENDIZABAL KALEA
URDANETA AUZOA
UNANUE PLAZA
REZOLA PASEALEKUA
BARANDIARAN PLAZA
LEKUONA PLAZA

Erantzun taldeka ondorengo galderak

● Ezagutzen al duzu kale, plaza edo auzo horietakoren bat?

● Zergatik ote du kale batek pertsona izena?

● Zure ustez, pertsona horiek hilda ala bizirik ote daude? Zergatik?


● Datuak zerorrek bilatzea duzu egokiena. Informazio ugari aurkituko duzu webgunean. Zein ote da lanbide hori duen pertsona?

| LANBIDEA | PERTSONA |
|--|----------|
| Arkitekto ospetsua izan zen, besteak beste, Herri Antzokia eraiki zuen. | |
| Oso artista entzutetsua izan zen: margolaria, argazkilaria... | |
| CAF lantegiko sortzaileetako bat izan zen | |
| Ordiziarra ez izan arren, plaza bat dauka bertan. Euskal Herrian oso ezaguna da: ikerlaria, antropologoa, mitologian aditua... | |
| Esploratzaile eta nabigatzaile ausarta izan zen. | |

Beste kale batzuk, berriz, animalia baten izena dute, edo bestelakoa...



Oilokale, Astokale, Ganadu plaza, Txakurtxulo, Eskarabilla... Halaxe deitzen diegu gure herriko zenbait kaleri. Kale horien izen ofiziala zein da, ordea? Aurkitu al duzu tankerako besterik?



Ganadu plaza




Astokale

PRESTATU ZURE GALDEKETA

| IZEN HERRIKOIA | NON DAGO? | ZERGATIK DU IZEN HORI? |
|-------------------|-----------|------------------------|
| Ganadu plaza | | |
| Eskarabilla | | |
| Txakurtxulo etxea | | |
| Oilokale | | |
| Astokale | | |
| Txerrikale | | |



PERTSONAIA EZKUTUA



rraz esaten da: orain dela 500 urte baino gehiago jaio nintzen Ordizian, 1508an.

Seguru asko egin zidaten estatuari esker ezagutuko nauzue. Hori dela eta, batzuek santu beltza esan izan didate, baina ni ez nintzen ez santu ez beltz, abenturazale eta bidaiari amorratua baizik. Beharbada estatua ere horrexegatik mugituko zuten hainbeste: tren geltokiaren aldamenean, plazan, Zabale pareko bidegurutzean aspaldian...

Haurtzaroa Ordizian igaro nuen. Batzuetan Oria erreka handituta etortzen zen eta gogoan dut azokara etortzen ziren baserritar batzuek, hainbeste ur ikusita, nola pentsatzen zuten itsasoaren aurrean zeudela. Baina nik banekien ibaia zela, eta itsasoraino zihoala, Oriora hain zuzen ere, eta nik egurrezko itsasontzi txikiak egiten nituen urak haraino eramanez zitzan. Eta banekien, era berean, tarteka herrian agertzen ziren kaiok eta itsas txoriak handixe etortzen zirela, itsasoa gaiztotuta zegoelako edo han ekaitza zelako. Nik esne zopak botatzen nizkien, eta marinela izango nintzela egiten nuen amets, esploratzailea, nabigatzailea. Egin kontu Elkano getariarrak munduari lehenengo aldiz bira egitea lortu zuenean, nik 13 urte nituela... Baina ezin egurrezko itsasontziak egitearekin etsi. Familia aberatsean jaio nintzen, gure aita Ordiziako alkate ere izan zen, eta kanpora bidali ninduten ikastera: latina, filosofia, gramatika eta, batez ere, matematikak. **Serio demonio** ikasi nuen eta, azkenean, Indonesiarano joatea lortu nuen, hain zuzen ere Elkanorekin, Espezien Uharteak esaten dieten lekuaraino, Moluketaraino.

Nabigatzaile izatea lortu nuen, hortaz. Baina aita ere izan nintzen, han alaba bat izan bainuen. Militarra ere izan nintzen, Portugalen kontrako borroketan, eta azkenean Mexikon fraile sartu nintzen, azteken artean kristautasuna zabaldu nahian. Hala ere, Espainiako erregeak Filipinetarako espedizio batean parte hartzeko eskatu zidan eta hara ere joan nintzen. Itsasbide berri bat asmatu nuen handik Mexikora itzultzeko eta horrek eragin handia izan zuen orduko merkataritzan.

Nire bizialdian **gorriak eta beltzak** ikusi nituenez, alabak abentura haiek kontatzeko eskatzen zidan, batez ere, ur faltan, itsasoan gure gurena edan behar izan genueneko... Azkenean, leher eginda eta nire jaioterria gogoan, Mexikon hil nintzen, itsas bazterrean dagoen Acapulco hirian, 1568an.

Egia esan, orain dela 500 urte, horren baliabide gutxirekin, harrigarria da ikustea munduan zehar zer nolako bidaiak egiteko gauza izan ginen. Eta ni harrituta eta eskertuta nago herritarrok kale bati nire izena eskaini izanagatik, eta, duela gutxi, egin dizkidazuen omenaldiengatik. Agurru aurretik, nire esker ona filpeneraz adierazi nahi nizueke: *Salamat!!!*



Den-dena ulertu ote duzu? Ea, bada, egia den!

Dagoeneko jakingo duzu zein naizen, ezta? Zer zenekien orain arte niri buruz?

.....
.....
.....

Nire bizialdian "gorriak eta beltzak" ikusi nituela esan dizuet, zer esan nahi ote dut horrekin? "Serio demonio" ikasi nuela ere bai, zuek hori nola esango zenukete?

.....
.....
.....


Nire bizitza harrigarri samarra irudituko zitzaizun akaso? Zerk harritu zaitu gehien?

.....
.....
.....

Norbaitek galdetuko balizu, NOR naizen eta ZERGATIK naizen hain ezaguna. ZER esango zenioke hitz gutxitan?

.....
.....
.....

POPULAZIOA



Eta, orain, zenbat ote gara?



Gure pertsonaia ezkutua jaio zenean, XVI. mendearen hasieran, 500 biztanle inguru omen zituen Ordiziak. Ordutik hona asko hazi da herria, baina gorabehera ugariekin. 1975. urtean 10.000 biztanle baino gehiago omen ginen.

Erdi Aroan Ordiziak hiri izaera eduki arren, naturak eta landa munduak izugarritzko garrantzia zuten. Hain zuzen ere horrexegatik, baratzea, basoa eta ibaia hiru iturri garrantzitsu ziren elikagaririk beharrezkoenak eskuratzeko.

GALDEREI ERANTZUN

Horretarako, gogoan izan aski informazio aurkituko duzula web gunean.



Jaki nagusienetako bat ogia zen. Nola lortzen ote zuten?

.....

.....

.....

.....



Oria ibaia ere janari iturri garrantzitsua zen. Zer arrain mota ote zegoen?

.....

.....

.....

.....



Etxeak, berriz, oso baxuak ziren, bi pisukoak. Zerekin egiten ote zituzten?

.....

.....

.....

.....

Basotik zer lortzen zuten?

.....

.....

.....

.....



Fruitu arbolak ere landatzen zituzten; gaztainondoak eta sagarondoak batez ere. Zer lortzeko helburuz?

.....


.....

.....



LANBIDEAK

Garai hartako lanbide batzuek landa munduarekin zuten zerikusia: nekazariak, artzainak, arrantzaleak eta errotariak, esate baterako. Beste batzuk, berriz, hiribildu barruan zeuden: merkatariak, artisauak, ehungileak, jostunak, arotzak, okinak, ferratzaileak, tabernariak...



HIZKI-ZOPA

Zazpi lanbide aurkitu behar dituzu.

EZETZ ASMAU!



Hemen aipatzen den lanbideetako batek izena eman dio Ordiziako etxe ezagun bati. Zein da lanbidea eta zein da etxe hori?

JAIAK

Gerrak, suteak, gosetea edota izurriteak pairatu arren, beti izan dute ordiziarrek jai eta alaitasunerako okasioa. Dantza eta kantu asko gorde dira urtez urte. Horietako bat da **santanazaleen aureskua**, herriko jaietan plazan ezkonberriek dantzatzen dutena. Egun horretan, emakume ezkonberriek Andres Urdanetak Filipinetatik ekarritako mantilak jantzen dituzte.



Ondorengo irudiarekin zerikusia duen beste ospakizun bat askoz lehenagotik datorkigu. Murumendiko Mari ere bertan izaten da. BA AL DAKIZU ZEIN DEN?

.....

.....



Garai hartako Ordizian baziren produktuak saltzeko eta erosteko gune batzuk; gaur egun bezala, azoka eta etxabeetan kokatutako saltokiak ziren. Etxe horietako batzuk familiaren bizileku ziren, eta saltoki eta lantoki ere bai. Jakiak ez ezik, bestelako produktuak ere saltzen ziren bertan: oinetakoak, jantziak, ontziak, aiztoak, nekazal tresnak, altzari txikiak...

Baziren tabernak ere; edariak saltzen zituzten sagardoa eta ardoa batik bat.

**AZOKA ERE
PRODUKTUAK SALTZEKO
ETA EROSTEO GUNEA DA.
BA AL ZENEKIEN ORDIZIAN
ASTEAZKENERO EGIN OHI
DEN AZOKA GIPUZKOAKO
ZAHARRENETAKOAK DELA?
NI INOIZ JOAN IZAN NAIZ
NIRE ARTALDEAREKIN.**



Tarteka eta egun jakinik gabe egiten zen merkatua astero-astero egiten hasi zen halako batean, asteazkenetan hain zuzen.

Zergatik ote?

Aztertu taldeka ondorengo irudia, agian pistaren bat emango dizu eta!



Entzun adi-adi jarraian datorrena. Irudi honekin zerikusia duen istorioa kontatuko dizugu. Aldameneko orrialdean idatzita dator.

MARIK NIRI KONTATU BEZALA...

Duela 500 urte, gaur egun Ordizia izenarekin ezagutzen dugun herria, gertaera izugarri baten kokalekua izan zen. Martxoaren 18a zen, osteguna. Herriko biztanleak eguneroko lanetan zebiltzala, ustekabean kanpaien soinu zaratatsua entzun zen, herritar guztiak estu eta larri jarri zituen. Zer gertatzen ote zen? Bai keak bai erre usainak agudo zabaldu zuten arrazoa: sute beldurgarri batek hartu zuen herria. Eta jendearen oihuak eta garrasiak edonon, animalien zalapartak bazter guztietan...

Hurrengo egunean herriak agertu zuen itxura ikazkin baten txondor ketsuarena zen: dena kiskalita zegoen, pertsona eta animalia asko hilda... Hura zoritxarra eta zorigaitza! Egoera larri hartan, Villafranca handik eta hemendik laguntza jasotzen hasi zen, Zumaia bazarretik esaterako. Baina laguntza nagusia Gaztelako erreginarengandik jaso zuen. Erregina honek Juana izena zuen —*Juana la loca* ezizenez ezagunagoa— eta nik ez dakit benetan erotuta zegoen ala ez; baina herriari, behinik behin, mesede galanta egin zion: orain dela 500 urte, asteazkenero, merkatu librea —zergarik gabea— egiteko errege baimena eman zion herriari. Ordiziako azoka bazter guztietan egin zen ezaguna eta, horri esker, bai bertako jendeak bai kanpokoak Ordiziako azokan beren produktuak saltzeko eta erosteko aukera paregabea izan zuen. Mende batzuk geroago, trena iristeak bultzada handia eman zion azokari. Astero-astero, urteak joan urteak etorri, azokak bizirik iraun du gaur arte. Horrela jarrai dezala urte askoan!”




IDAZLANA

Honezkerok jakingo duzu NOIZ, NOLA eta ZERGATIK hasi zen egiten Ordizian asteazkenero azoka. Idatzi beheko lerroetan. Gero etxean kontatu!



AMONA AGEDAREN KONTUAK



aur egun denek **Ordiziako azoka** esaten dute, baina nire iloba Kattalinek ere. Txikia izan arren, *nerre lamiatxoak* asko daki. Badaki, esate baterako, azoka hitza arabieratik datorrela, *zoco* hitzetik nonbait. Zeinek esan, ezta? Nik, berriz, **Bilaprankako perie** esan izan dut, eta *perie* hitza latineko feriatik omen dator, eta nik hala esaten jarraituko dut. Bai, nik *Ordiziko perie* izugarri maite dut. Urteetan joan izan naiz eta oraindik ere joaten naiz ahal dudan guztietan.

Makina bat lan egin behar izan dut aurretik. Baratzean baratziak landatu —letxugak, azelgak, azak, porruak, patatak—, gero hauek bildu, garbitu... Oiloei eta oilaskoei jana eman, arrautzak kontuz-kontuz jaso... Untxiei ere jana eman eta, eta... Bukaezina! Eta ni bezalaxe hamaika emakume aritu izan da lan eta lan!

Gaur egun autoak dauzkagu, baina garai batean halakorik ez, eta astoa edo behorra majo kargatuta jaisten ginen baserrietatik gure produktuak perian saltzera. Nik Ordiziako plaza estalita ezagutu dut,

baina nire ama Joxepak estali gabe ezagutu zuen eta makina bat aldiz erabat bustita eta hotzak akabatzen itzultzen zen baserrira. Inguruko herrietatik ere etortzen zen jendea trenez, saskiak besapean hartuta. Lan asko egin behar izaten genuen, baina hala ere pozik. Kalera jaisteko eta jendarekin kontu batzuk esateko aukera ezin hobea zen guretzat asteazkeneroko perie. Lagunarte ederrean egoten ginen, bai horixe! Gizonezkoak ere bai, noski, baina haiek ganadu, arkume edo txerri artean, edo taberna inguruan!




AZALPENAK IDATZI

Irudi zahar hauek 1934an egin zituzten gehienak. Konturatuko zarenez, lehenak izan ezik, gainerakoek argazki-oina behar dute. Idatziko al dituzu zuk?



1

Jendea tren geltokitik azokarako bidean.



2



3



4

AMONA AGEDAK
AZOKAZ
ESANDAKOA,
BERTSO
BATEAN
LABURBILDUTA
AZALTZEN DA.
HARI BERTSOAK
IZUGARRI
GUSTATZEN
ZAIZKIO,
ETXEAN
UME-UMETATIK
ENTZUN ETA
KANTATU IZAN
DITU-ETA!



ORDIZIAKO AZOKA: AZOKA ETA ZERBAIT GEHIAGO!



I
Patata, porru, leka, letxuga
babarrunak, kalabaza
piper, tomate, azenario
baratxuri eta aza
kiwi, gerezi, sagar, madari
mahats eta mahaspasa
lurrak emanak edertzen digu
asteazkenero plaza.

II
Udaletxeko arkupe dena
betea gazta ederrez
haien ondoan arkumetxoak
ardi amari negarrez
txitak txioka, untxiak mutu
txerrikumeak daldarrez
gu bizitzeko haiek hil behar
sinestea ez da errez!

III
Salmahai atzean muxu gorridun
baserritar bikotea
hirurogeina urte pasata
kosta tente egotea
gorputz sendoa eta zaildua
eskua babaz bete
nekez ari den nekazaria
da baserritar maitea.

IV
Baina bai pozik jaisten direla
asteazkenero _____ ,
bati muxua, besteak aupa:
gaur ere etorri _____ ?
Noski (azoka aitzakia da)
kontu batzuk _____ ,
bizitza pixkat gozatu asmoz
lagun zaharrekin _____ !

Iñaki Murua

●
**Gustatu al zaizu
bertsoa?**

●
**Konturatuko
zinen azkeneko
bertsoan zenbait
hitz falta direla:
BATERA, ZERA,
KALERA,
ESATERA.
Kokatuko al
dituzu dagokien
tokian?**

●
**Koloreztatu
bertsoan; berdez
barazkien
izenak, gorriz
fruituak eta
urdinez
animaliak.**

●
**Abestuko al
dugu denon
artean?
Horretan,
aitona Peruk
lagunduko
digu. Ea zenbat
ikasi duzun!**



Bertsoan makina bat barazki eta fruituren izenak
azaltzen dira. Hor aipatzen direnetatik bakarren bat
ikusten al duzu postu eder honetan?



Goiko irudi horretan azarik ikusten al duzu?
Ba al zenekien ordizarroi aza esaten digutela?
Eta Beasaingoei bareak eta Itsasondokoei...?






AZAK GOOORA, AZAK BEHEERA,
BAINA ORAINDIK EZ AL DAKIZUE NIRE
ESNEZ EGINDAKO GAZTA DELA ORDIZIAKO
AZOKARI OSPE HANDIA EMAN DIONA?
IRAILEKO EUSKAL JAIETAKO AZOKAN
DIRUTZA EDERRA ORDIAINTZEN DA
GAZTA ONENAREN ERDIAGATIK!

LABIRINTOA



Lagundu Kattalini azokako itzulia egiten. Barazki eta fruta besterik ez du erosiko. Laukiz lauki joan behar du, erosi behar dituen produktu horiek dauden tokietatik pasatuz. Gorantz, beherantz, ezkererantz nahiz eskuinerantz mugitu daiteke, baina sekula ez diagonalean. Geziz markatutako laukiren batetik abiatu eta saskiraino heldu behar du.



Ordiziako
asteazkenak, 1972.

Aurrean duzun arte-lan hau Irene Laffittek egina da. Irene Laffitte margolaria, sortzez donostiarra izan arren, Ordiziako Areta baserrian bizi izan zen urte askoan, eta oso lotura estua izan zuen gure herriarekin. Horrexegatik *Aretako Dama* izenez ere ezagutu izan zen.

Olio-pintura honetan artista donostiarrak Ordizian asteazkenetan sortzen den giroa azaldu nahi izan zuen; plaza jendez gainezka eta guztiz builosoia.

MARGOTU



Orain zure txanda da. Hartu papera eta margoak eta pintatu Ordiziako azoka. Irene Laffittek asteazkenetako giro builosoari erreparatu zion bezala, zuk zeri erreparatuko zenioke?



Ordiziarron hizkera berezia da, tolosarren moldea nahiz donostiarrrena edota zegamarrena berezia den bezala. Hitz eta esamolde asko ditugu geure-geureak, baita ahoskera ere. Entzun, entzun...




Amona Ageda, Aitona Peru eta Kattalin azokara doaz aspaldiko partez. Ezagunak agurtuko dituzte bidean, eta lagun zaharrek kontu batzuk esan. Primerako tokia da elkarren berri emateko eta herriko kontuak ikasteko.



Konforme, ordun santu beltzen amabitako!
Txintxo ibilli amonakin ta laundu geo e, Kattalin!

Gero arte Peru,
amabik aldea azalduko gea
betiko lekun.



Egie esan,
aspaldi ez.
Pattal xamar ibili naiz
ta gaur launtzaillea
ekarriet bazpare.
Kattalin bakaziotan dau
ta gukin dau
baserrin.


Eun on, Ageda! Bizi al gea?
Aspaldi etzea peria jetxi eh!

A ze neska
politte daun!

Suerte
earra
aukezu. Ni
bakar-bakarrik
nau.

Bueno, Pepi... Beandu
gailtze... Urren arte!

Eun on, Joxepa!
Tomate earrak dauzketzu geo!
Zenbaten dare?



Bai, baino
benetan earrak.

Garesti xamar, ezta?

Jarriazu ordun, bi kilo.

Ara,
Kattalin e
emen dau-ta!
Sanjoan sar bat
nai zu?

Gustoa emateo
umeeke frutea
jaten ikusteek.

Ala da bai.

Sortuko
al zenuke antzeko
elkarrizketaren
bat?



Koka itzazu elkarrizketan falta diren esaldiak dagokien tokian

- 1 Urrengo arte bai!
- 2 Baita zurire Ageda! Egie esan, aurten tomatek earrak dare bai. 3 euron kiloa!
- 3 Bai attona, lasai.
- 4 Politte ta bixkorra. Eztakizu, zenbat kontu esateizkiun!
- 5 Bai, jango nuke. Gosek nau-ta! Eskarrik asko!



LABURBILDUZ

Kattalinek izugarri ikasi duela ematen du. Ordiziari buruzko gauza asko eta asko jakin ditu Mariren istorioen bidez, aitona Peruk eta amona Agedak esandako kontuekin, argazki zaharrak begiratzuz, etxekoei eta herriko jendeari galderak eginez, herriguneko txokoak arakatuz...
 Adibidez: Ordizia aspaldi-aspaldi San Bartolome baselizaren inguruan sortu zela.

Eta zuk zer ikasi duzu? Idatzi, idatzi hemen!



Baina badakizu? Nire ametsa gure herria ezagutzen jarraitzea da. Nire sekretua da hori. Eta zurea? zer iruditzen zaizu? Bai? Primeran! Baina badakizu sekretuekin kontu handiz ibili behar dela... Bai horixe! Aitona Peruk esaten duen bezala:
Marabara, maraberi, kontakatilu hiztuna bertan hil bedi!